


Astekaria



elgoi

Bazkalorduak etxetik kanpo



ESKAINZA BEREZIA

PIONEER

MUSIKA KATEA

C.D., Pletina bikoitza, mandoa,...

59.900 pta.

BEZA BARNE



MILAR ARTEGI

DENA SOINUA

ESKAINZA GEHIAGO SONY-AIWA-TECHNICS MARKETAN

San Frantzisko, 40 • ELGOIBAR • Tel. (943) 74 06 87 • GIPIZKOA

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Andres

Alberdi, Esteban Antxustegi,

Pello Arrieta, Felix

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Izaskun Elizburu, Jon Etxabe,

Jon Eugi, Ina Garagarza,

Joseba Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Amaia

Gorostiza, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maite Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Eduarne Korita, Imanol

Larrañaga, Javi León,

Antonio Matias, Susana

Mujika, Maite Solozabal,

Karmelo Urdangarin, Julen

Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.


(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Fikzioa

Bazirudien, azken boladan, guretzat jotzen dugun herri honetatik fikziozko herria bailitzan, alde egiteko ohitura zabalduz zihoala. Eta, beharbada, hain ideia okerra izango ez zelakoan edo, nik ere ospa egitea erabaki nuen.

Horrela, uhinek arroken kontra bezala, ametsek halabeharraren aurka hausten zirela pentsatu eta, besterik gabe, itsasuntzira abiatu nintzen. Belak zabaldu eta, haizea aldeko, mendebaldera zuzendu nuen nire branka.

Berehala, itsaso zabaleko misterioetan barneratua nengoen.

Zein ongi gogoratzen dudan goizalde argitsu hura. Haize ezti eta iraunkorra lagun, itsasoa bare eta urdin. Artizarra gidari, olatuak melankoniatsu itsasuntzi inguruan. Hura bai zoriontasuna!

Baina zeinuek ezin hobeak ziruditen arren, jakina, itsasoaz ez dago inoiz fidatzerik. Esan eta gertatu. Ordura arteko zero gardenak, bat-batean, hodei beltz eta erraldoiz estali zen, itsasoa dardaratu eta uhin izugarriak sortu.

Ekaitzak nire itsasontziarekin, intxaur azala bailitzan, jolasteari eman zion. Nire aieneek mastaren zurrumuru negartiekin bat egiten zuten, zorigaitzean elkarren arteko

kontsolamendua aurkitu nahi genuela ematen zuen. Azkenean, eztarria urratu eta nekeak jota, badirudi loak hartu ninduela. Heriotz loak, dudarik ez.

Oinaze artean esnatu nintzen.

Arrastorik ere ez non nengoen. Guztia arraroa egiten zitzaidan, uraren kolorea ere bai. Hala ere, batzuetan, bazirudien, urrutian, lehorraren itxurako zerbait antzematen nuela, baina, handik berehala, zulo beltzago batean sartuta nengoen, irudikatutako plazer puska hori desplazer bilakatu, ahoko gustua garrartzuz. Nirea, bada, inpotentzia eta esperantzarik gabeko bidaia.

Puff! Pentsatzearekin bakarrik larritu egiten naiz. Hau zorabioa!


Horregatik, hoberena, bidaiari bukaera ematea izango da, eta fikziozko bidea denez, badaukat hori egiterik.

Dena dela, zenbaiti herri hau fikziozkoa iruditu arren, bertan gertatzen diren gauzak ez dira batere fikziozkoak, oso errealak eta kezagarriak baizik. Horregatik, hainbat gauza beste era batekoak izatea gustatuko balitzait ere, bertan gelditzea erabaki dut.

Baina orain lotara noa, ea zerbait atsegina, fikziozkoa izan arren, amesten dudan. Bihar arte. Ongi izan.

Esteban Antxustegi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Plaza Txikiko komunek zergatik ez daukate pestilorik?

Udalarekin jarri gara harremanetan eta bertatik esan digutenez, komunak egiterakoan pestiloak ez zituzten ipini, baina dagoeneko jarri dira pestiloak ateetan.




KEXAK

- Emakume batek deitu digu Madalako eta Plaza Txikiko kolunpioetako erroberak apurtuta daudela esateko. Iltze txikiak bistan omen daude, mina hartzeko bezala. Dagokionari, mesedez, konpontzeko eskatzen dio ahal bezain laster.

- Ikasle batzuk etorri zaizkigu IMHn eta Mekanikan porteriak falta direla esateko. Jolastera joan eta ezin izaten dute gauza handirik egin porteriarik ez dagoelako. Ea laster batean ipintzen dituzten!



TXALOK



ESKUTITZAK

Arnaldoren erantzunen bueltan

Ez nuke irakurlegoa nazkatu nahi, baina Arnaldo Otegi-ren erantzunak irakurri ondoren, zuzen-zuzenean ikutzen nindutela sentitu nuen eta erantzutea erabaki dut.

Nork esango zuen Arnaldok aldegin zuenean, duela 18 urte, Elgoibarrera bueltatzean, BARREN herri astekari euskaldun honetan nahi duena esateko aukera izango zuenik. Berak dioenez, orain dela 20 urte, Estatu frantsesaren apostua errepresioa eta biolentzia omen zen. ETak ez zuen hori esaten garai hartan. Estatu frantsesaren sistema "DEMO-CRACIA BURGESA FORMAL"tzat jotzen zuen. Gero, Estatu espainolean sistema berdina finkatzen zihoan neurrian, ETAn, batzuek joko politikoan parte hartzea erabaki zuten eta besteek indarkeriarekin jarraitzea. Azkenengo hauek dira hemen ezertxo ere ez dela aldatu esaten dutenak. Horrez gain, Euskadin bizi garen guztiok beraiek bezala pentsatu behar dugu. Bestela, kritikatzeko baditugu, Jose M. Calleja bezala "ONDO MEREZITAKO BELDURRAREKIN BIZIKO GARA". Diario eta Correoa irakurtzen baditugu "ODOLA BEROTZEN ZAIE, BOTO ESPAINIARRA EMATEN BUKATUKO DUGULAKO".

Baina zer uste dute!, ez dakigula zer irakurtzen dugun? Berriak eta gaiak idazten dituzten bezala irensten ditugula, irizpide edo kriterio propiorik ez bagenu bezala?

Beraiek dira herria, horregatik "EZ DUTE EUSKAL HERRIA BAKEAN EGOTERIK NAHI". Beraiek dute indarra, horregatik "DIRUA DAUKANAK ORDAINDU DEZALA NAHI BADU", dio Arnaldok. Zeozer gehitzea ahaztu zitzaion; adibidez, (bestela, sekuestratu edo bahitu egingo dute).

Ah, hori bai! Gero, lazo urdina daramatenak "HERRI HAU ETA BERE PROIEKTU POLITIKOA ZAPALTZEN ARI DIRA". Entzun ezazue, zuek ez duzue, inolaz ere, herri osoa errepresentatzen. Zuek %12? bakarrik zarete. Beraz, zuen proiektu politikoak ez da herri honen proiektua, zeuona da, bakar-bakarrik. Gehiago oraindik, HBk ez ditu abertzale-ezkertiar guztiak ordezkatzeko, nire iritziz, HBn "abertzale" RADIKAL eta INDARKERIAZALE asko dago eta ABERTZALE-EZKERTIAR gutxi, gutxiegi.

Bukatzeko, Euskal Herriko geihengoaren borondatea errespetatu ezazue, nahiz eta "infernuko zuloa" joatea erabaki.

Juanjo Baztarrika Garate

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Aste honetako erretratu **Kontxa Azkue** lagatakoa da. Kontxak esan digenez erretratu 1910. urtearen bueltan aterata dago, San Roke inguruetan seguruenik.

Nork atera zuen horrelako erretratu bitxia? Victoriano Azkue Alonsok, Julian Azkue erretratatzailearen aitxixak. Victorianori asko gustatzen omen zitzaion erretratuak ateratzea eta sendiko jendeari deitzen omen zion erretratuan irteko.

Ikus dezagun zeintzuk osatzen duten emakume koadrila hau:

Zuhaitzean ezkerretik hasita: **Pepita Ibieta** (†), **Anjelita Azkue** (†) eta **ezezaguna**.

Eserita: **Saturnina Ziaran** (†), **Lola Bidaurreta** (†), **Emeteria Mugerza** (†) eta **Jesusa Barrenetxea** (†).

Atzean azaltzen den gizonezkoa, berriz, **Pepe Aizpiri** (†) dugu, donostiarra eta Emeteria Mugerzaren senargaia.



AZKUE

 **OIERKI IGONGAILUAK**
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

 **CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.**
*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*
Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Eskoletako lapikoen usainean

Goizean goiz gurasoak agurtu eta eskolara joaten dira. Iluntzera arte ongi neurtuak eta beteak dituzte orduak, eskolan, solfeoan, dantzan... Gaur egun, arrazoi ezberdinak tarteko, ume askok eta askok etxetik kanpo denbora asko ematen dute, horien artean baita bazkaltzeko ordua ere. Elgoibarko OHOk hiru ikastetxeetan jangela dute. Eta hiruretan izan ginen bertan izaten den giroa eta mugimendua jasotzeko asmoz. Hona hemen emaitza.

Herri Eskolan 1980. urtetik dago martxan jangela. Izan ere, garai hartan Mendaroko haurrak eta auzoetakoak ere joaten omen ziren, guztiak autobusez. Haien etengabeko joan-etorria ekiditeko asmoz, beraientzat erosoagoa izan nahian edo, jangela irekitzea pentsatu zuten. Horrela bada, gaur egun eskolan bertan ematen dute bazkalordua ere. Ikas-

tolan eta Pilar ikastetxean arrazoia bestelakoa da, gurasoek hala eskatuta hasi baitziren jangela prestatu eta bazkariak ematen; orain bost urte Ikastolan eta duela bi urte Pilarren. Tradizioaren eraginez edo, Herri Eskolak dauka jangelarik handiena bai eta haur kopururik handiena ere, jangelako arduraduna den Santiago Abaden hitzetan, “160 ume geratzen dira egu-

nero jatera”. Ikastolan 60 haur elkartzen dira eta Pilarren 25 gutxi gora-behera. Era batara edo bestera, guztietan sortzen den giroa izaten da benetan ikusgarria. Pilar ikastetxeak, bere izaera erlijiosoak bultzatua, badu besteek ez duten ohitura bat, M. Luisa Arozenak esan digunez, “bazkaltzen hasi aurretik, janaria bedeinkatu egiten dugu egunero”. Halere, hiru ikastetxetan arau konkretuak dituzte, izan ere “oso inportantia da haurrek ondo jaten ikastiaz gain, jendian aurrian ere nola portau bihar diazen ikastia” azaldu digu M.Tere Iraolagoitia Ikastolako arduradunak. M. Luisa Arozenak argitu digunez, “guk hiru hilabetean behin arau berriak jartzen ditugu jangelako horman, denek oinarritzko hainbat gauza ikas ditzaten”.

Pasta gustokoen

Lenteja, makarroiak eta patatak errioxa erara. Arraina, eskalopea eta patata tortila. Hara gu izan ginen egunetan haurrek batean zein beste-

<< Denetik jaten ezezik portaera arauak ere erakusten zaizkie haurrei eskolako jangelan >>



■ ■ Barazkiak dira gutxien gustatzen zaiena. Gehien, berriz, makarroiak eta arroza.



■ ■ Herri Eskolako jantokian bakarrik prestatzen dute janaria bertako sukaldean.

an zuten menua. Santiagok aitortu digunez, “denetik jaten dute, guk hala irakatsi diegu eta”. Halere, “barazkia gehiegi gustatzen ez zaienez, pure eginda ematen diegu”. Ikastolan behintzat, platera garbi-garbi utzi arte ez dute mahaitik jaikitzerik, “umiek esaten dabe nik bost begi ditxudala. Dana kontrolatzen dot eta”. Baina zein baino zein txin txoago ikusi genituen ume guztiak, kamararen aurrean zertxobait astoratu baziren ere.

Hortzak garbitu

Herri Eskolan sukaldari bat eta laguntzailea dute janaria prestatzeko. Pilarrean eta Ikastolan, aldiz, Auzolagunetik prestatutako janaria ekartzen diete eta gero ikastetxe bakoitza arduratzen da haurren artean banatzeaz. Hiru retan ere elikadura oso ondo zaintzen dute, garrantzitsua baita txiki-txikiak direnetik

ahalik eta elikadura konpletuena izatea. Jangeletako arduradunenez gain, bestelako zaintzaileak eta laguntzaileak ere egoten dira baina, “umiek ere laguntzen dute, nagusiek txikiei zerbitzen, norberak bere platera jasotzen eta abar”. Bi urteko umeak hasi eta BBBkoak barne, adin ezberdinetako neska-mutilak elkartzen dira eguerdiko 12,30etatik

« Egunero elkarrekin bazkaltzeak giro berezia sortzen du guztien artean »»

aurrera. Ordu erdi eskas egiten dute bukatu artean eta gero, bakoitzak bere kajoitxo sartuta duen poltsatik hortzak garbitzeko pasta eta zepiloa hartu eta hortzak garbitzen ditu. Bazkaltzen hasi aurretik eskuak garbitu behar dituzte beti eta bukatu eta gero hortzak.

Familiarteko giroa

Azken finean egunero elkarrekin bazkaltzeak giro berezia bat sortzen du guztien artean. Ikastolako Mari Tere, umien "bigarren ama" modukoa da. Batez ere txikienek, gustu handiz hartzen dute beraiekin jolastuko duen norbait, “eta umiek jasotzen dabenian, eman ere asko ematen dabe”. Herri Eskolan ikusgarria zen

kurtso nagusietakoek haur txikiak nola tratatzen zituzten ikustea eta Pilar ikastetxean, ikasle baten urtebetetzea zela eta, gainontzeko guztiek zorionak nola kantatu zioten entzun ahal izan genuen. Eta, postre berezi bezala, guztientzat gailetak. Etxetik kanpo egoteak ere zerbaiterako balio baitu.

Zer moduz eskolako jatorduak?



Iñaki Ansola

(11 urte)

“Beti bazkaldu izan dot eskolan eta oso gustora ze lagunekin egoten naiz, etxian gehixao aspertuko nitzake. Gehixen oilaskua eta entsalada mista gustatzen jata eta gitxien purea.”



Nagore Cid

5 urte

“Eskolan etxian baino hobeto bazkaltzen dot, lagunekin jolasian. Albondigak gustatzen jataz asko eta oilaskua oso gitxi, baina dana jaten dot.”



Josu Beristain

11 urte

“Martxan jarri zanian hasi nitzan eskolan bazkaltzen. Segun zer dauan jateko nahixao dot etxian bazkaltzia baina bestela ondo ibiltzen naiz. Gehixen arroza, albondigak eta melokotia gustatzen jata eta gitxien lentejak, arraina eta sagarra. Arraultzarik ez dabe ipintzen eta asko gustatuko litzaidake.”

Hirugarren Munduarekiko solidaritza

Pasatako igandean DOMUND eguna ospatu genuela eta, Hirugarren Munduarekiko solidaritza hitz egin nahi nuke.

Txikitandikan entzun izan dugu badirela, gu ez bezala, behar handiekin bizi diren beste herri asko. Askok esango duzue, eta hori ez dago ukatzetik, hemen ere beharren faltan ez gaudela, baina beharrak maila ezberdinekoak izan daitezke. Lan bidaia batean Indian egondako baten komentarioa datorkit burura: "sasoi batean hemen ikusten ziren ijitoen antzeko karramatoak, Indian "Capitán General" dira. Honek kezka sorrarazten du gure baitan eta bakoitzak ahal duen neurrian arazo hauei erantzuteko desioak beste batzuekin elkartzerantz bultzatzen gaitu.

Aspalditik, herrian Parroki Elkarteak "Misio Taldea" izan da arazo honen ardura berezia izan duena. Lehen era batera, eta azken urteotan bestera, egin den guztiak beti, helburu berbera izan du: behartsuei lagundu. Ekintza bereziren bat antolatu izan denean, janari, sendagai, benda, eskolagaitz edo garbitzeko jaboi bilketa, errota baten eraikitzea, Kubarako laguntza eta abar luzea, gure Parroki Elkarteak oso erantzun zabala izan du beti, bai haur eta gaztetxoaren artean,

nola helduen artean ere. Izan ere, herriko zenbait seme-alaba eta herritik pasa diren hainbat lagun, Andresa Ezenarro, Edurne Altuna, Pura Mujika, Jose Luis Garate, Juan Santos "Añana", Begoña Odria, Jose Luis Astigarraga, Migel Markiegi, Elena Albizuri, herrialde horietariko behartsuekin bat eginda bizi dira eta ekartzen dizkiguten berriek, beharrek edo lanerako proiektuek askoz ere biziagoak dirudite euren hitzetan. Ondorioz, jendeak oso ondo erantzuten du.

Herri mailan beste ekintza batzuk ere aurrera atera izan dira. Gurtze Gorriak, Karitasek eta hainbat ikastetxetako ikasleek antolatuta, BOSNIA eta RUMANIAren aldekoak adibidez. Kasu guztietan herritarren eskuzabaltasuna agerian geratu da. Laguntza emate horrek, poza eta satisfazioa sortzen ditu geure barnean, baina aldi berean lotsa sentiarazi ere bai, ze, daukagun ugaritasuna edukita... zer suposatzen digu ematen dugunak? Erakunde publiko mailan badira %0,7 delako ekintzan konprometitzen ari diren hainbat Udal -Elgoibarko ez oraindik- eta Eusko Jaurlaritzak gai honetaz duen sentsibilitatea aipatzekoa da, horretara zuzentzen duen diru kopurua urte urte gora baitoa.

Gaur egun jende artean gai honek duen oihartzuna garrantzitsua da. Kontuan izan hainbat gazte eta profesional -sendagile, erizain, maisu- elgoibartar batzuk tartean, herri hauei eskaintzen dien kolaborazioa. Txalogarria benetan!

Guzti hau ikusita makina batek zera esango du: nazioarteko arazo estrukturala dela eta jakina, gure ahalegin xumeak "partxeak" besterik ez direla. Baina beharrez dagoenak ezin du estruktura noiz aldatuko zain egon, eta zenbait larrialdi bapateko irtenbidea topatu behar zaie. Gainera, hemendik hara joan direnei sarri entzun izan diegu "partxe" horiei esker egiten dutela aurrera.



ROSARIO ANDONEGI

PNB
ARRATS

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58

GAIXOTASUN ASEGURUA

- INTERBENTZIO KIRURGIKOAK
- OSPITALIZAZIOA

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

Hirugarren Mundurako laguntzarik ematen duzu?



MAITE ORTIZ DE ETXEBARRIA
44 urte, etxekoandrea

Normalean Parrokiako eskeetan. Umeen mezatan jasotzen zen janaria, sendagaiak, arropak... Ondo dago ematea, baina bidean asko galtzen dela uste dut.



SOLEDAD ALBO
72 urte, etxekoandrea

Egun berezietan bai, baina ohituraz ez. Lehen Txinontzat seiloak ematen genituen, etxean mordo bat daukat gordeta. Arropak portalera datozenei ematen dizkiet.



J. MARI BARRENETXEA
67 urte, jubilatua

Dirua elizan botatzen deu. Ostian erropak ere ematen ditxugu. Bestelako kanpainen berririk ez dou izan etxian baina hamen herrixan ere badao biharra.




ANGEL MENDIZABAL
50 urte, langabetua

Domund-erako ematen dugu eta emaztea katekista denez haura ibiltzen da. Baina hemen ere behar handia dago, langabetu asko eta asko dago eta.



LEONOR FILGEIRA
42 urte, etxekoandrea

Bai elizan bai etxera eskean datozenean. Beti ematen dut kanpainen. Pentsatu nahi dut ematen dudana behar den lekura heltzen dela.



LISARDO VICENTE
25 urte, ikaslea

Arropak batez ere. Jjendeari dirua ematea gehiago kostatzen zaio. Lehen katekesiak eramaten zuen gai hau baina orain erakunde asko sortu dira laguntzeko.

HEMENDIK

BODEGA

Gure berezitasunak:

- Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta

Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00

ecenarro

- Bot t w n q
- g t t q r c m
- U o g g p
- g t t q r c m

San Frantzisko 10,
Tel.: 74 26 19

■ Karakatera bizikleta martxa igandean

Karakate Bizirik plataformak bizikleta martxa antolatu du larunbaterako, hilak 28. Igoera oinez egingo da eta jaitsiera bizikletaz. Azken hauek furgonetaz igotzeko aukera dago. Goizeko 10etan izango da irteera bai Elgoibartik bai eta Plaentxitik ere. Hiru hilabetez Karakateko antenaren eraikitze-lanak geldirik egon eta gero, berriro ekin diote lanei. Karakate Bizirik plataformak antenaren eraikitzea salatu nahi du, "Elgoibarko eta Soralezeko Udalen jarrera salatu. Soralezeko Udalak atzera bota du lanak geldiarazteko eskaera, Karakate parke natural izendatzen duten arau subsidiarioei muzin eginez. Horrez gain, Garate jaunak dioenak ez du ez hankarik ez bururik. Batetik, Karakatek 'Dolmenen bidea' izendapena duela esaten du eta bestetik, ingurugiroa zaindu beharra dagoela. Ez da logikoa". Horrez gain, Udalak bultzatuko duen parke zoologikoaren aurka agertu da Gazte Asanblada.

■ PP lanpostuetan euskara eliminagarria izatearen aurka

Udaletxeko Kultura eta Kirol sailtarako administrari laguntzaile baten posturako oinarriak eztabaidatu ziren Kultura Batzordean. Honen aurrean, Juan Carlos Avianek, PPko ordezkariak, prentsaurrekoan azaldu zuenez, "Autonomi Estatutuaren arabera, inor ez da diskriminatu behar hizkuntzagatik. Beraz, euskara azterketa puntuagarria izan behar da baina ez eliminagarria". Bestalde, Udal Kirol Patronatuko Junta Erretorean alderdi bakoitzetik bana egotearen alde azaldu zen, "guztiek izan dezaten aukera botua emateko. Botu bakoitzak alderdiak duen ordezkariaren arabera balioa izango luke".



Ehundaka herritar batu zituen igandean HIESaren kateak

HIESak jota hil diren elgoibartarrei eta hauen senitarteko eta lagunei omenaldi beroa eskaini zien Errotatxo elkarteak pasa den igande eguerdian. Errotatxok egindako deialdiak erantzun zabala izan zuen herritarren artean, ehundaka lagun bildu baitziren Plaza Handian lazo gorriaren aurrean. Une hunkigarriak bizi izan zituzten senideek txalaparta, bertso, irrintzi etab.en artean. Segidan, HIESaren Astea eta ome-

naldi eguna bukatzeko, herria ia alderik alde zeharkatzen zuen giza katea burutu zen. Bere aldetik, Errotatxo Elkarteak HIESaren Astean zehar burutu diren ekintza ezberdinetan parte hartu duten herritar eta koletiboei eskerrak luzatu nahi dizkie eta jendearen erantzuna "oso positibotzat" jotzen dute. "Igandeko omenaldia bezalako ekintzek HIESaren prebentzioa denoi dagokigun arazoa dela erakusten dute".



San Viator eguna, fraileen patroien jaia, ospatu zuten pasa den ostiralean Pilar ikastetxeko irakasle eta ikasleek. Goizean zehar txikienak patioan jolasten aritu ziren eta bigarren ziklokoak, jolasean aritu ezezik, futbol eta pilota txapelketen finalak ere jokatu zituzten. Jai eguna ondo baino hobeto bukatzeko, arratsaldean klaserik ez zuten eduki.

Ramon Ortegak irabazi du I. Ojanguren argazki lehiaketa

Ramon Ortega argazkilari elgoibartarrak Estatu mailako Eibar-ko VIII. Indalecio Ojanguren Argazki Lehiaketa irabazi du. Pasa den larunbatean eman zuen epaimahaiak jakitera irabazlearen izena.

Ortegak 1994. urtean New York-en atera zituen saritutako argazkiak. Lehiaketan aurkeztutako argazki bilduma koloretako hiru erretratu osatzen dute. Argazkilariaren esanetan "inguruetako argazkilaritza egitasmoak bultzatzearen erabaki nuen lehiaketan aurkeztea, baina egia esan, azken aldian, lagata neukan lehiaketan kontua". Bidaiatzea gustuko du, "joan-etorrietan egiten ditut argazki lanak".

Honako sari honez gain, beste asko ere irabaziak ditu dagoeneko Ramon Ortegak. Gaur egun Gipuzkoako argaz-

kilari ezagunenetakoa dugu. Azaroaren bukaera aldera, Donostian erakusketa kolektibo batean izango dira bere lanak ikusgai, eta urtarri-lean Bartzelonan egingo du erakusketa.



■ Euskal kantariak Herriko Institutuan

Aldundiak antolatutako "Euskal Kantagintza Gipuzkoako Eskoletan" kanpainaren barruan, lau kontzertu ezberdinekin euskal kantagintzaz gozatzeko aukera izango dute Herriko Institutuko ikasleek. Pasa den asteartean Anje Dualde izan zen kantari Mekanikan eta datorren ostiralean, azaroak 3, Ganbara taldeak kontzertua eskainiko du eguerdiko 13:00ean Herriko Antzokian. Azaroaren 7an eta 14an, berriz, Txomin Artolak eta Ruper Ordorikak Mekanikako Areto Nagusian kantatuko dute eguerdiko 13:00ean. Kantaldi hauek Herriko Institutuko ikasleentzat bakarrik dira.

■ Otarra elkarte

Otarra elkarteak, Produktu Biologikoen Kontsumitzaileen Elkarteak, urteko batzar nagusia egingo du datorren azaroaren 4an, arratsaldeko 3etan Hernialdeko Kultur Etxean. Produktu biologikoen munduan mugitzen direnei zuzenduriko deialdia da. Batzarraren ostean afaria egingo da Gipuzkoako Biolur Elkartekoekin batera. Izena emateko Otarra elkarteko 33 25 47 zenbakira deitu.

Lanbide Heziketako

azken ikasturteko ikasleei zuzenduta, enpresak sortzeko iniziatibak bultzatzeko asmoarekin, Saiolan-eko zuzendaria den Armin Isastik hitzaldia eman zuen pasa den asteartean Kultur Etxean. Caja Laboral-ek eta Saiolan erakundeak gazteen artean enpresak sortzeko informazio kanpaina hasi dute eta Lanbide Heziketarako Institutuak aukera aprobetxatu nahi izan zuen Elgoibarko ikasleen artean iniziatiba berriak bultzatzeko. Hitzaldian Arantxa Odriozola Caja Laboraleko Marketing Saileko teknikariak, Armin Isasti Saiolan-eko zuzendariak, Ricardo Astigarraga Elgoibarko Caja Laboraleko zuzendariak eta Agustin Agirre Lanbide Heziketako irakasleak hartu zuten parte.



Edurne Korta:

“Kolonbian, ikasteko benetako interesa dute”

23 urteko elgoibartar gazte honek 1993an bukatu zituen Elikagaien Zientzia eta Teknologiarri buruzko ikasketak. Joan zen urtean pestizidak elikagaietan gaiari buruzko tesina egin zuen eta aurten berriro itzuli da unibertsitatera. Orain, Leioako unibertsitatean Kimika

Analitikoko Departamentuan ikerketa beka batekin dago enpresa farmazeutiko baten proiektuan kolaboratzen. Hau guztia gutxi balitz, 1995eko abuztua eta iraila Medellineko Antioka unibertsitatean igaro ditu lanean Intercampus beka bati esker.

- Zer nolako esperientzia izan da?

- Laborategi batian egon nitzan lanian eta teknika analitiko berriak ikasi nitxun; beraz, alde horretatik gauza interesgarriak ikasi nitxun. Esperientzia moduan oso ona izan da zeren nahiz eta hizkuntza berdina izan, haura beste mundu bat da.

- Konferentziak eman al dituzu?

- Bai, Kimika, Farmazia eta Elikagaien teknologiarriko ikasleentzat. Gure hezkuntza sistema nolakoa den azaldu nien. Han ez daukate Dokortzarik eta asko interesatzen zaie Europara etortzea horretara. Ikasleek doktoregotza zer den galdetzen zuten, zer bete behar zen, bekak... Eurak galderak egin eta nik erantzun egiten nitxun. Eurak esaten daben bezela “conberzatorio” bat izan zan. Azkenengo kurtsoetan zeuden kimikako ikasle eta irakasleentzat bi seminario tekniko ere eman nitxun kimika analitikoari buruz.

- Zer izan da gehien harritu zaituen?

- Bai ni, bai hemendik joandako beste guz-



“Harrituta geratu nitzan Kolonbian dagoen natura aberatsarekin”

tiak harrituta geratu ginan han dagoen naturarekin. Aberastasun handia dute. Petrolioia dute, urrea... denetik. Horrelakuak ikusitxa pentsatzen dozu nola dan posible hainbeste euki eta aldi berian hain pobre izatia. Harritzekua da, baitxa ere, beraien finantziario txarra. Batzuk oso aberatsak dia eta beste batzuk, gehienak, ia ez dute bizi-tzeko adina.

- Gustatu al zaizu bertako bizimodua?

- Bueno, hasieran

kriston kontrastia da. Medellin oso hiri handia da, jende pila bat bizi da eta %60 “barriadetan” oso kondizio txarretan. Jende asko kalean bizi da, gauzak saltzetik, txiringito asko dago. Hasieran hainbeste pobrezia ikusteak txokatu egiten zaitxu. Halere, jendeak zailtasun asko dituen arren bizitzeko oso ondo hartu gintuzten, oso irekiak dira, beti laguntzeko prest daude... Gu oso gustura egon gera.

- Ezberdintasunik naba-

ritu al duzu euskal eta kolonbiar unibertsitatearen artean?

- Ni egon nintzen unibertsitatea publikoa zen. Jendea oso gustura joaten da klasera, benetako interesa dute ikasteko. Hor ikusi dut kontrasterik handiena ze hemen askotan klasera joaten gara aprobata egin behar delako, inolako interesik gabe. Kolonbiako unibertsitatean jendeak gehiago hartzen du parte klasean hemen baino. Jende gutxi dauka ikasteko aukeria eta daukanak ondo aprobetxatzen dau.

- Pozik geratu al zara burututako lanarekin?

- Nire laborategiko lana positiboa izan dela uste dot eta toki asko eza-gutu ditzut, hango errealtatea ezagutzeko aukeria izan dot. Pozik geratu naiz.

- Buelatzeko asmorik?

- Bai, asko gustatu zait. Kolonia oso handia da eta denetik dauka: kosta atlantikoa, pazifikoa, basamortua, Amazonas... Denbora eta ekonomia aldetik ahal badut, itzuliko naiz. Gainera, lagun onak laga ditzut han.

JABI LEON

kiliBARREN

Mendaroko gehigarria

Urriak 27

22. zkia.

Joan al zara inoiz ehizara?

Udazkenean urtero bezala lehenengo gaztainerkin batera hasten dira Mendaron lehen tiro hotsak. Ohitura dela eta, goizean goiz mendarotar asko joaten da mendi aldera ehizatzeke asmoz. Gure artean aski zabaldua dagoen ohitura izan arren, ehizaren inguruan beti egon izan da nolabaiteko eztabaida. Batzuent-

zat ehiza kirola, afizioa da. Beste batzuentzat, ordea, hilketa hutsa. Badira ehiztariak beharrezko eskopeteroak nagusitzen direla uste dutenak. Badira, baita ere, ehiza bai, baina platerean bakarrik ikusi nahi dutenak ere.

Ehiza sasoia aprobetxatuz kalera jo dugu mendarotarraren iritziak jasotzeko.

Iker Kanalaetxeberria

19 urte, ikaslea

Ez, niri ez zait gustatzen txoriak harrapatzea. Besteek egin nahi badute eta jarritako legeak jarraitzen badituzte bale, baina nahiago nuke ez balute ehizatuko.



M. Jose Larrañaga

41 urte, etxeakoandrea

Ez, ni ez naiz sekula jun. Batzuentzat kirol bat da eta nik hori onartzen dot baina beti neurri batzuen barruan, arauak errespetatuz.



Unai Andonegi

19 urte, ikaslea

Bai, askotan. Txikitatik juten naiz. Normalian oilagorretan ibiltzen naiz txakurra-kin. Gainera, pen-tsaten dot ehiztarixak ehizan ibiltziazatik kalte gitxi eitzen dauala.



Amaia Urrea

14 urte, ikaslea

Bai, postua tokatzen bazaigu Lizarpera joaten gera eta bes-tela edozein tokira. Ai-txakin juten naiz. Bera goizez juten zan eta ni ere holaxe hasi nitzan, mendixan ibiltziazarren. Birigarroak, usoak

eta horrelakuak harrapatzen di-txugu ze oilagorretan ibiltzeko txakurra bihar da eta guk ez dakagu. Neretzat, gusta-tzen zaionari utzi egin behar zaio ehizatzen.



Jose Luis Zubiaurre

38 urte, mekanikoa


Bai, txiki-txikitatik dakat ehizarako afizioa. Oilagorretan eta usotan ibiltzen naiz normalian Mendaro inguruan. Nik pentsatzen det txorixak gutxitu badira ez dala izan ehiztarixengatik. Gainera, ni ez naiz ehizara juten txorixak jatiarren. Aste guztia tailarrian sartuta egon eta gero mendixan ibiltziazarren juten naiz, batez ere.



Antonio M. Albizu

38 urte, harakina

Bai, gaztetan aitxakin hasi nitzan. Oin askotan juten naiz. Ehiza sasoian ixa egunero. Oilagorretan ibiltzen naiz, normalian Mendarotik kanpo. Neretzat ehiza kirola da. Oilagorretan, adibidez, kostatu egiten da eta lortutakoan satisfazio handia ematen du.



Lur industrial berria

Badira bi urte Mendaroko Industrialdearen obrak amaitu zirela eta, dagoeneko, eraikitako 12.000 m²tik ia pabiloi guztiak martxan daude. Ondorioz, Udalak lur industrial berria sortzeko ikerketa bat enkargatuko du.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren barruan, Atxuri baserrian bizi den Jose M. Bastida Uraini aipatu zerbitzua egiteko Mendaroko pertsona bat behar da. Zerbitzua atentzio pertsonaletakoa da eta lana astelehenetik ostiralera bitartean izango da, ordubete egunean. Bidaian ematen den ordua eta kilometroak ere kontuan izango dira ordaintzeko denbora. Izena emateko Udal gizarte laguntzailearengana jo behar da azaroaren 9a baino lehen.

2

Errealzaleen elkarte osatu da Mendaron

Futbolarekiko zaletasunak eta, batez ere, Errealarekiko zaletasunak eraginda, Mendaroko Errealaren Lagunak taldea sortzen ari da. Dagoeneko 92 bazkidek eman du izena baina oraindik urte osoa dago aurretik bazkide egin nahi duen jendearentzat. Izen ematea Txirristaka tabernan egin daiteke

eta kuota 1.000 pta.koa da urteko. Taldearen ohorezko bazkidea Aranzabal jokalaria bergararra izendatu dute. Bestalde, kiniela bat atera dute. Jokatutako diruaren %60a saritarako izango da eta gai-nontzeko %40a taldearen finantzarako geratuko da.



Mendaroko Udalak "Kirola Euskaraz" programan hartuko du parte



Mendaroko Udalak, Deba Garai-ko Mankomunitatea eta Deba Behe-

ko hainbat udalekin batera, Kirola Euskaraz programaren baitan elkarlanean jardutea erabaki du. Lankidetzeta hitzarmena 1996an sinatuko da. Programaren barruan, alde bate-tik, kirol monitore eta entrenatzaile-entzako prestakuntza ikastaroak antolatuko dira euskaraz. Bestetik, euskarazko kirol materiala prestatuko da (liburuak, metodoak...) eta, era berean, kirol arloan euskararen erabilera areagotzeko beharrezkoak diren hainbat ekintza antolatuko dira. Programaren finantziatorako Udal bakoitzak urtero 12 pta. eman beharko ditu biztanle bakoitzeko.

PROTAGONISTAK



3

Hilabete honetako argazkia **Jesuita Iriondok** lagatakoa da. Argazki hau 1955. urtean ateratakoa da Mendaroko "San Jose de las M. M. Agustinas" ikastetxean. Jesuitak esan digunez, San Jose bezperan jaia egiten omen zen eskolan eta argazkia egun horretan aterata omen dago.

Hona hemen ikasle talde hau osatzen dutenen izen-abizenak: Ezkerretik eskuinera. Goian: **Margarita Lazkano, Jesuita Iriondo, Mercedes Mugerza, Ignacia Iriondo, Consuelo Garcia** eta **M. Angeles Urain**.

Erdian: **Juanita Ulazia** eta **Pakita Urain**. Behean: **M. Dolores Lezeaga, Belen Ansola, Ana M. Zabaleta** eta **Maribel Lazarobaster**.

Jone Marin

Postaria



- Zein eskutitz jasotzeak egingo lizuke ilusioa? ■ Lagunen eskutitzak.
- Postala ala eskutitza nahiago? ■ Eskutitza.
- Lan atsegina al da postari izatea? ■ Niretzat bai.
- Lana aldatzekotan, zer egingo zenuke gustura? ■ Ez dut planteatu, gustura nago lan honetan.
- Inoiz jaso al duzu maitasun eskutitzik? ■ Bai, asko.
- Banatu duzun eskutitzik orijinalena? ■ Orain dela gutxi banatu nuen eskutitz bat boteila baten barruan zihoan, itsasoz iritsi izan balitz bezala.
- Nora joango zinateke oporretan? ■ Edozein tokitara.
- Zein motatako eskutitza banatu nahi zenuke? ■ Eskutitz pertsonalak banatzea nahiago dut propagandakoak edo kutxakoak baino.
- Zuk bidaltzen al duzu eskutitzik? ■ Gutxi, gehiago idatzi beharko nuke.
- Postariak beti deitzen al du bi aldiz? ■ Batzuetan deitzen dugu bi aldiz.

Paloma Iribar Zulaika:

"Arazoak dituzten familietako kaltetu nagusienak seme-alabak dira"

Emakume hau zestoarra den arren ezaguna da mendarotarren artean. Mendaroko Udaletxean egiten du lan duela hamar urtetik hona. Gizarte Laguntzailea da. Bere kezka nagusiak, beraz, mendarotarren arazoak dira eta bere bulegotik, ahal den neurrian, jendeari laguntzen saiatzen da.

- Zer da gizarte laguntzaile bat?

- Nahiko zaila da azaltzea oso lan zabala da eta. Gure lana arlo ezberdinetan banatua dago, hortaz, hirugarren adinarekin, elbarriekin, gazteekin, emakumeekin eta abarrek egiten dugu lan. Arazoak dituztenekin, nolabait esateko.

- Zein da zure lana Udaletxean?

- Denetik piska bat baina batez ere laguntza ematea. Hirugarren adinaren kasuan, adibidez, bada "Etxez Etxeko laguntza" deitzen den programa. Horren bitartez, pertsona nagusi bat bakarrik bizi bada, etxera joango zaion norbait aurkitzen dugu, berari lagunduko dion norbait. Pentsioak tramitatzen ere ibiltzen gara.

- Hirugarren adinarekin egiten duzu lan batez ere?

- Bai, nahiz eta duela bi urte familiarekin ere hasi ginen lanean. Familia batzuek hutsuneak dituztela ikusi dugu. Familia hauetan hazi diren seme-alabek gero euren familia osatzerakoan arazo horiek izan ditzakete, beraien haurtzaroak eragina baitauka. Arlo horretan egin nahi genukeena baino gutxiago egi-

ten dugu, bulegoan ere egon beharra baitauekagu eta horrek dedikazio handia eskatzen baitu.

- Bulegora etortzen den jendeak zer nahi du?

- Normalean zerbaiten eske etortzen dira, diru eske. Ez dira etortzen arazo bat dutela esanez eta arazo horri irtenbidea eman nahi diotela esanez. Inor ez zaigu etorri droga arazoak dituela eta laguntza behar duela esanez.

- Zeintzuk dira Mendaroko arazo nagusiak?

- Esan bezala, familietan arazo handiak izaten dira eta seme-alabengan eragina duten arazoak izan ohi dira. Era berean, emakumeekin nahiko arazo egoten da, tratu txarrak jasan behar dituztenak daude eta horrek gerora eragin handia izaten du. Hirugarren adinari dagokionean, gero eta jende edadetu gehiago dagoenez, arazoak ere ugaritu egiten dira baina, era berean, erre-



kurtso gutxiago daude. Nahiz eta nagusiek beraien etxean egotea nahi duten, hobe egongo lirateke beste tokiren batean.

- Gogorra al da zure lana?

- Hasieran agian gogorra da baina lana bizitza errealetik banatzen jakin behar da. Argi dago lan honetan jendearen arazoekin etengabe zaudela harremanetan baina lana eta bizitza propioa banatzen jakin behar duzu. Batzuetan zaila da arazo horietan ez pentsatzea baina desberdindu beharra dago.

- Zure kezka eta nahi nagusiak?

- Nire kezka edo helburua jendeari laguntzea da eta ez kritikatzeta. Administrazioa askotan gaizki ikusia dago eta jendeak beldurra dauka arazoak geuregana ekartzeko orduan.

4

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual, Alaitz Vives.



Mendaroko Udalaren
dirulaguntzarekin
argitaratua

TEXTIL HOGAR LAGUNAK

DISEINUA
eta

Oihalgintzan zure etxerako
behar duzun guztia daukagu.

Olaso kalea 54. Tel: 74 44 57 ELGOIBAR

EXMAHE S.L.

MAKINA ERREMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

BULEGOAK:

Aspilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR

**Mertxe
Muruamendiaraz**

Murua pasteleriakoa



- **Zure bizitzako mementu gozo bat?** † Nire seme-alabak jaino zirenean oso momentu politzak izan zian.
- **Eta zein une garratz gozatu nahi zenuke?** † Senitartekoen heriotza.
- **Zeri edo nori bota nahi zenioke tarta bat?** † Jendea “entxufeen” bitartez kolokatzen ari dela jakiteak sutan jartzen nau. Guztiei botako nieke tarta bat aurpegira.
- **Noren omenez egingo zenuke tarta bat?** † Orain hamar urte gurasoek urrezko eztaiak bete zituzten eta beraien omenez egin genuen.
- **Zer egiten zaizu merengea bezain enpalagosa?** † Zenbait pertsonak berba mordo bat egiten du ezer esan gabe. Astuna egiten zait.
- **Zein mementutan nahi zenuke izatea “relanpago” bat?** † Galdera batzuk egiten dizkidatenean relanpago bat bezain azkar erantzun nahi nuke.
- **Notizia “bonba” bat?** † Jende gaztea lana aurkitzen ari dela izan da aspaldian entzun dudana notiziariak onena.
- **Zure buruari sarri egin diozun galderaren bat?** † Bizitza honetan egiten ari garena egokia den ala ez.
- **Txokolatea ogiarekin ala boiloarekin?** † Txokolatea boiloarekin eta ura bolatuarekin.
- **Nori deituko zenioke “bollito”?** † Julen Gerrerori.
- **Sekula eman al dizute goxokiren bat gero ahotik kentzeko?** † Ez, sekula.
- **“Pasta” gogorreko emakumea al zara?** † Ez, bigunekoa.
- **Zerk egiten du zure eskuetan irrist gurina bailitzan?** † Denborak, nahi baino gutxiago daukat.
- **Zer ikusi nahi zenuke kremarik gabeko “kanutillo” batetik?** † Errekak eta mendixak garbixak.
- **Kafea hutsik ala esnearekin?** † Esniakin eta bi azukre koskorrekin.
- **Sekula deitu al dizute “bonbon”?** † Gaztetan bai.
- **Zein irlatako “palmeraren” azpian egon nahi zenuke?** † Sheichelles irlatan.
- **Kanela afrodisiako omen da.** † Hala izango da baina garestia denez eta gutxi hartzen dugunez, ez dago jakiterik.
- **Zertarako duzu “koko” ona?** † Oso memoria bisual ona daukat.

**BERTSOLARIEN
GIPUZKOAKO
VI. TXAPELKETA****DOINUA:** Leiho ertzetik

Aste honetan BARRENentzako egin bertsoen kolekta. Auskalo zein gai jarri zidaten bazen nahiko berriketa. Ni gai librea hartzera noa, ez naiz akordutzen eta. Hasten noa, zer puñeta! (Zer gai hartu? Badut kezka). BIS Txapeldungaiak ezetz diote, bertsoez baitira neka. Beraz nahikoa interesgarri (dator aurten Txapelketa). BIS

Jon Sarasua, Murua edo Jokin Sorozabal berdin. Bertsolariek jardungo dute oso dotore eta fin; aspiranteen jarraitzaileek egingo dute ahalegin. Denak ekin eta ekin, (eta gu duda batekin.) BIS. Aurten txapeldun nor izango den batzuek nahi dugu jakin. Ea lortzen den txapelketa hau (nahi bezala joan dadin.) BIS



ARNAITZ GORRITI

Kk g
ILEAPAINDEGIA
☎ 74 00 69
San Frantzisko, 40 3 - B

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

Urruzunoko zabortegia

Deba Beheko Mankomunitateak eskaera egin zuen Urruzunoko zabortegian deposito berri bat eraikitzeko eta bertan hainbat zabor botatzeko. Honen bidez, gaur egun bide bazterretan geratzen diren zaborrak bertara eramango liriateke, ingurugiroaren onerako. Hiru kontainer edo zaborrontzi jarriko dira bertara obra txikiek eraginiko zaborrak botatzeko.



Hazienda

- Haritz Dantza Taldeari San Bartolome jaietan Solteko Dantza Txapelketagatik, 273.000 pta.
- Parrokiako Katekesi taldeari Umeen Egunaren antolakuntzagatik, 250.000 pta.
- Gure Bide elkarteari Memorial Etxaniz txirrindulari frogagatik 420.000 pta.
- Mauxitxari San Bartolome jaietan aritzeagatik, 740.000 pta.
- Musikeskolari abuztuko, iraileko eta urriko gastuengatik, 7.610.298 pta.



Ordezkapena Udaltzaingoa

Xabier Izagirre elgoibartarrak udaltzain lanetan jardungo du datozen bost hilabeteetan. Xabier izan da udaltzain postuen oposaketetan hirugarren geratu dena eta barnetegira euskara ikastera doan beste udaltzain baten ordezkapena egingo du.

Azarotik aurrera bi udaltzain berri izango ditugu herrian

Pare bat aste dira udaltzain berriak aukeratu zituztenetik. Mikel Arantzamendi ondarrutarra eta Koldo Mikel Uribesalgo arrasatearra aurrerantzean aurpegi ezagunak egingo zaizkigu herrian. Oposaketa bidez atera dituzte beraien postuak. Hasiera batean 49 pertsonak eman zuten izena udaltzain postua betetzeko asmoz. Horietatik bi baino ezin aukeratu eta hara hona egin behar izan zituzten frogak.



■ ■ Udaltzain berriak. Mikel Uribesalgo eta Mikel Arantzamendi.

Hasierako 49 haietatik 30 aurkeztu ziren lehen frogara, euskara azterketara. Lanpostuari 2. perfila dagokio eta EGA zuenak ez zeukan azterketa egin beharrik. Lehen froga hau 14 pertsonak gainditu zuten. Horiek egin behar izan zuten bigarren froga fisikoa izan zen. Besteak beste, altura eta luzera jauzia, 60 m.ko lasterketa eta pisu jaurtiketa egin behar izan zituzten. Altueran, esate baterako, 1,20 m. zen gainditu behar zuten gutxieneko neurria eta 60 metroak gutxienez 10 segundotan korritu behar zituzten. 12 pertsonak gainditu zuten. Hirugarren azterketan Elgoibarri buruzko ezagupenak neurtu ziren. Inguruan zein herri dauden, mendien izenak, biztanle kopurua... Eta, mapa batean herriko hainbat kale eta eraikun-

tza kokatu behar izan zituzten. **Temarioa**

Hurrengo temarioa izan zen. Udaltzainei buruzko arauak, legeak, zuzenbide penalari buruzko hainbat gauza, trafiko legeak... Hamabi gai ikasi behar zituzten guztira eta horien artetik bi garatu behar izan zituzten. Froga honetara 12 pertsona pasatu baziren, bostek bakarrik gainditu zuten. Azken froga balizko adibide praktikoei buruzkoa izan zen. Hainbat egoeraren aurrean nola jokatu behar duten zehaztu behar zuten. Lauk gainditu zuten azken azterketa. Oposaketan bakoitzak atera

zuen puntuazioaz gain, lan esperientzia eta lanarekin zerikusia duten ikastaroak kontuan hartu ziren eta bakoitzari elkarriketa pertsonal bat egin zitzaion.

« Hogeita hamar hautagai aurkeztu ziren azterketara. Temarioari buruzkoa izan zen frogarik zailena »»

San Lazaro ospitalea

- Malako ermitari itsatsia eta izen bereko plazan aurkitzen da San Lazaro egoitza
- XVI. mendean bost ospitale txiki zeuden Elgoibarren: Madalakoa, Errebalekoa, Ubitartekoa, Arriagakoa eta Altzolakoa. Lehenengo biak herri fundazioak ziren. "Hospitale-rak" larunbatero etxez etxe ibiltzen ziren XVIII. mendera arte herritarrei limosna eskatzen. Honez gain, zenbait pertsonak hil-tzerakoan dirua uzten zuten ospitalea mantentzeko. Gainontzeko hirurak ospitale partikularrak ziren eta aberatsek mantentzen zituzten: Ubitartekoa Juan Ibarrek sortu zuen, Arriagakoa Karizianoko Juan Martinezek eta Altzolakoa Juan Lasturrek.
- Probintziako erabakien arabera, gure lurraldeko ospitaleak bakandu egin ziren. Elgoibarko ospitale partikularrak desagertu egin ziren eta beste biak bat egin zuten. XIX. menderako San Lazaro ospitale zaharra izan zen gelditu zen bakarra.
- Baina, ospitale hark ez zituen osa-

sun eta asistentzia baldintzak betetzen eta Udalak ospitale berri bat eraikitzea erabaki zuen. 1869. urterako eraiki zuten, arkitektoa Santiago Sarasola izan zelarik.

- 1869ko uztailaren 1etik aurrera Karitateko mojen ardurapean aurkitzen da egoitza. 1872. urtetik 1972.era oinarritzeko eskola ematen aritu ziren bertako geletan.
- 1957. ean Urasandiko zubi berria eraikitzeko ospitalearen zati bat bota egin zen eraikina bitan banatuta geratuz.
- 1980. urteko irailaren 26an, egoitza berria eraikitzea erabaki zen.
- 1981.eko irailaren 19an ospitalea hustu ondoren, mojen komunitatea eta biztanleak zenbait etxebizitzatan hasi ziren bizitzen.
- 1985.eko azaroaren 27an mojak eta biztanleak San Lazaro egoitza berri-
ra joan ziren bizitzera. Eraikin berriaren proiektua Marquet eta Zulaika arkitekto donostiarrek burutu zuten.

PELLO ARRIETA



Mario Iranzo

(1942-1986)



- Albaceten jaio zen, Balsa de Ves herrian, 1942ko martxoaren 25ean.
- Gazte zelarik, 13 urterekin Elgoibarrera etorri zen.
- Armeria eskolan maestria industrialia ikasi zuen.
- *Ciaran*-en taladroak egiten izan zuen lan munduarekin lehen kontaktua. Geroago *Erbi* eskopeta kooperatiban lan egin zuen.
- *Analsan* eman zituen urterik gehienak, hasieran *Citroen*ekin eta gero *Opel* etxearekin.
- Karakate Mikologi Elkarteko bazkide zen eta perretxiko lehiaketan epaimahiko ere bai.
- Tanborrada zale amorratua zen, urtero hartzen zuen parte hutsik egin gabe.
- C.D. Elgoibar Elkarteko zuzendaritzako kide izan zen. "Haundi" a hirugarren mailara igo zen sasoiaren presidente hautatu zuten. Bi urtez egon zen karguan.
- 1986ko maiatzaren 27an hil zen auto istripuz.

JOSE ANTONIO ileapaindegia

•Hies-a eta hepatitisaren kontrako tresneriaz horniturik. •"Tresneria zorrotzekin arreta handiena eskatzea gomendatzen dugu bezeroari.

•"Kerastase" tratamenduak.

Errosario, 30. Tel. 74 14 92. ELGOIBAR

KAFETEGIA



Santa Ana 4 25 20

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

MOTZAK

Atletismo lasterketak

Mintxetako Atletismo Taldeak eta Udalak antolatuta, larunbatean, hilak 28, 1984. eta 1985. urteetan jaiotako Eibarko eta Elgoibarko atletak, alebinak hain zuzen, aurrez aurre izango dira luzera jauzian, altueran, 60 m. eta 100 metroko lasterketetan. Goizeko 10etatik aurrera Mintxetako Udal Pistetan burutuko dira lasterketak, bai nesken bai mutilen mailan.

Pilota partiduak

Gaur, ostirala, hilak 27, Gipuzkoako Txapelketari dagozkion partiduak jokatu dira gaueko 10etatik aurrera Ikastolako frontoian. Kadeteetan Lagunak Pilota Eskolako Orbea eta Gerrikabeitia bikoteak Ormaiztegiko- en aurka jokatu du. Segidan jubeni- len txanda izango da. Elgoibarko Balzola eta Loiolak Eskoriatzako ordezkariak izango dituzte aurrez aurre. Aste honetan ez da seniorren partidurik egongo. Joan den asteko emaitzei dagokienez, kadeteetan, Lagunak Eskolako ordezkariak 22 eta 17 irabazi zuten Aretxabaletakoen kontra. Jubeniletan Bergarako bikoteari 15eko errenta atera zion Elgoibarkoak eta seniorretan ere elgoibartarrak izan ziren nagusi, 22 eta 12 irabazi baitzieten azkoitiarrei.

Karakatera igoera

Urgazik eta Morkaikok antolatuta, azaroaren 18an Karakatera igoeraren bigarren edizioa burutuko da. Izena emateko epea irekita dago, 74 02 97ra dei daitekeelarik. Irteera goizeko 10etan izango da Plazako frontoitik.



J. Manuel Navarro:

"Xakean irudimena eta konstantzia behar dira"

■ **Gaztetatik hasi zinen xakean.** - Zortzi urterekin, anaiek erakutsita. Afizio modura hasi nintzen.

■ **Gipuzkoako txapeldunorde ere izan zara.** - Bai. Hemen antolatu zuten Gipuzkoako Txapelketa eta 12 urtez azpiko kategorian izan nintzen txapeldunorde. Txikitan ona nintzen baina hobetzeko asko ikasi behar da. Liburuak irakurri, partidak aztertu, "aperturak" ikasi...

■ **Xake Txapelketa jokatzeko ari da Elgoibarren.** - Urtero hartzen dut parte, kanpoan egon izan naizenean izan ezik. Orain dela zortzi bat urte jende asko apuntatzen zen, seniorretan adibidez, 30 jokalarik. Baina gaur egun flojo xamar dago kontua.

■ **Zer dohain behar ditu xake jokalaririk?** - Inprobisazioa, irudimena eta konstantzia batez ere. Lau orduz aulki batean jarrita pasatzeko edonor ez dago prest. Gainera, gero, galtzen baduzu...

■ **Zenbat mugimendurekin irabaz daiteke?** - Aurkakoaren arabera da. Maila baxua badu agian bostekin nahikoa da. Hogeirekin ere irabaz daitezke baina antzeko maila duen batekin berrogei ere behar izaten dira.

■ **Noiz ematen duzu partida bat galdutzat?** - Erregina jaten badidate, momentuan. Batzuetan hiru peoi edo



zaldi bat jaten badidate galdutzat ematen dut partida. Arerio on baten aurka beti ematen da amore bizkorrago.

■ **Zein figurak ematen du aukerarik gehien?** - Erreginak, alfilaren eta dorrearen mugimenduak egin ditzakeelako. Baliotsuena erregea da.

■ **Nor izango zenuek gustura tableroaz bestalde?** - Txikitan Karpov. Baina orain lagunen aurka jokatzeko gustura.

■ **Ba al dago munduko txapeldunari irabaziko dionik?** - Une honetan ezetz uste dut. Kasparov-ek irabazi du orain gutxi Munduko Txapelketa, makina bat da, ikaragarria. Donostiako Openean 25 jokalariren aurka jokatu zuen aldi batean, eta 23ri irabazi zien.

■ **Zenbat tablero dituzu?** Dotore bat, magnetiko bat eta beste bat jokatzeko.


■ **Egin daiteke tranparik xakean?**

- Trukoak daude, "zelada"k deritzenak. Itxuraz txarrak diren jokaldiak dira baina gero ondorio positiboak dituztenak. Mugimenduen zergatia da aztertu behar dena.

- Adina: 24
- Zuriak ala beltzak? Zuriak
- Figurarik gustukoena? - Zaldia
- Parrandarako egun bat? Larunbata

ibai-ondo
Giza eskubideen Plaza
Tel: 74 26 27

ZALDUA
ITURGINTZA
GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK
Urasandi 26. Tel: 74 05 30



IRIONDO
Taberna
P. Muguruza. ELGOIBAR

Sei ikastaro burutuko dira "Kirola Euskaraz" programaren baitan

Deba Garaiko eta Beheko udaletako Kirol eta Euskara zerbitzuek antolatzen duten "Kirola Euskaraz" programaren barruan sei ikastaro ezberdin burutuko dira hemendik-eta Gabonak bitartean. 1993. urtetik martxan dagoen programa honi esker, euskarazko hainbat kirol liburu argitaratu eta beste horrenbeste kirol ikastaro burutu dira.



■ ■ Txirrindulari entrenatzaile titulua ateratzeko ikastaroa Oñatin izango da.

Gabonak arte luzatuko diren sei ikastaroen artean hiru entrenamendu titulua ateratzeko dira. Bi Elgoibarren burutuko dira: areto futboleko entrenatzailea eta atletismoko epaile titulua ateratzeko ikastaroa. Edozeinetan izena emateko edo berri gehiago jasotzeko Udal Kirol Zerbitzura zuzendu edo 74 44 15 zenbakira hots egin.

Tituludunak:

- Areto futboleko entrenatzaile titulua ateratzeko ikastaroa abenduaren lehen eta hirugarren asteburuetan burutuko da Elgoibarren. Klase teorikoak Kultur Etxean izango dira ostiraletan, arratsaldeko 7etatik 9ak arte eta klase praktikoak, berriz, larunbat eta igande goizetan Kirolegian. Izen-ematearen zenbatekoa 5.000 pta.koa da.

- Atletismoko epaile titulua eskuratzeko ikastaroa ere Elgoibarren egingo da, Mintxetan. Data zahaztu gabe dago oraindik.

- Txirrindulari entrenatzaile iza-

teko ikastaroa azaroan, hiru asteburuetan, antolatuko da, Oñatin.

Bestelakoak:

- Bizkarreko arazo edo lesioei buruzko ikastaroa ikastetxeetako irakasle eta kirol klubetako entrenatzaileei zuzendua dago. Eibarren burutuko da, azaroaren 25ean, larunbata.

- Kirol entrenamenduaren oinarriei buruzko ikastaroa gai honen inguruan liburu bat argitaratu duten IVEFeko bi bekadunek emango dute. Deban emango da azaroan. Bi asteburuko iraupena izango du.

- Azkenik, Euskal Mendizale Federazioarekin elkarlanean, mendiko orientazioari buruzko ikastaroa abenduan burutuko da ziurrenez.

1996rako beroketa, saskibaloia, eskubaloia eta rugby-ari buruzko material didaktikoa argitaratuko da. Programa honek Deba bailaran izan duen arrakasta ikusita, Donostialdean ere antzerako egitasmoa martxan jartzekotan dabilta.

Futbola

Elgoibar 3 - Intxaurdi 1 (Neskak)
Almen 6 - Elgoibar 1 (Infantilak)
Elgoibar 0 - Real 2 (Kadeteak)
Elgoibar 1 - La Salle 1 (Jubenilak)
Elgoibar 3 - Azkuene 2 (1. erreg.)
Urola 3 - Haundi 1

Saskibaloia

Elgoibar 49 - Zumaia 53

Eskubaloia

Don Bosco 10 - Elgoibar 21 (Kad.mutilak)
Ordizia 8 - Elgoibar 21 (Jubenilak)
Txankakua Elgoibar 25 - Jauja 21 (Seniorrak)

Areto Futbola

Elgoibar 7 - Sidrerria Donostiarra 2 (1. maila)
Elgoibar 1 - Laskurain 7 (2. maila)

Futbitoa

Ametza 1 - Sanroketarra 9
Roke 4 - Rebel Urbi 3
Aldavas 5 - S. Braga 1
Ikus Optika 5 - Udaberri 1

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 28

12,00 S.D. Eibar - Almen (Kadeteak)
13,30 Urki A - Aretxabaleta (Jubenilak)
15,15 Urki - Segura (2. erregionala)
17,00 Beti Sutan - Gazteak (2. erreg.)

Igandea, 29

10,00 urki B - Almen (Jubenilak)
11,45 Elgoibar - Kostkas (Infantilak)
13,15 Eibartarrak - Arrasate (Jubenilak)
17,00 Haundi - Zorroza

Asteazkena, 1

10,15 Elgoibar - Aloñamendi (Neskak)
12,00 Elgoibar - Gure Txokoa (1. erreg.)
17,00 Haundi - Juventus
18,45 Beti Sutan - Mutriku (2. erreg.)

Eskubaloia, Kirolegian

Larunbata, 28

16,00 Elgoibar - Legazpiko La Salle (Jubenilak)
17,30 Pagoaga Elgoibar - Zarautz (Kad. neskak)

Futbitoa, Urasandin

Igandea, 29 (Arbitraia: Udaberri)

10,00 S. Pitxote - Berrogei Duro
11,00 Aterpe - P.S.K.

S. Karapola - Lucky Luke

12,00 Oraiko Disco - Karkis
King Kong - Pedruskos

Asteazkena, 1 (Arbitraia: Pedruskos)

10,00 Rebel Urbi - S. Braga

11,00 Ikus Optika - Ametsa
Sanroketarra - Orbela

12,00 Kosakos - Roke
Aldavas - Udaberri

1996an jarriko da martxan Udal Kirol Patronatua

Kirolaren garrantzia azpimarratzeko asmotan bultzatu du Patronatuaren sorrera Udalak. Dagoeneko onartu ditu Udal Kultur Batzordeak Patronatuaren estatutuak eta aurrerago plenoak onartuko ditu.

Kirok gaiek Udaletxeko gainontzeko gaietan erabiltzen den prozedura bera jarraitu behar izaten dute; hau da, lehendabizi Kultur Batzordetik pasa, ondoren Hazien-datik, gero plenoak onartu... Prozedura luzeegia izan ohi da presazko arazoei berehalako erantzuna emateko. Hortaz, Udaletxearen funtzio-namendutik at legokeen erakundea sortzea erabaki zuen Udalak kirol gaien gestioa arintzeko asmoz. Horixe litzateke Patronatuaren helburua.

Erakunde autonomoa

Ekonomikoki autonomia dauka Patronatuak bai eta administrazio edo kontratazio gaietarako erabaki ahalmena ere. Aurrekontua Plenoak onartzen du eta Junta Erretore batek izango du ardura. Junta osatuko lukete presidentek (alkatea), presi-



■ ■ Herriko kirol instalazio ezberdinak gestionatuko ditu Udal Patronatuak.

denteordeak (PNVko ordezkaria), eta bost bokalek (HBk, EAK eta PSEk bana eta PNVk bi). Patronatuko zuzendaria (Kirol Teknikaria), Udaletxeko idazkaria eta interbentorea ere junta horretako kide izango dira baina ez dute erabaki ahalmenik. Azkenik, aztertzen den gaiaren arabera, aholkularitza funtzio hutsa duten kontseiluak osatuko dira, Federazioekin eta herriko klub eta ikastetxeekin.

Patronatuaren ondarea herriko

Udal kirol instalazio guztiek osatuko dute, hala nola, Mintxetak, Kiroldegiak, ikastetxeetako kanpoe, frontoiak, Tennis Pistak... Diru laguntza eta diru sarrera guztiak Patronatuak berak gestionatuko lituzke eta gastuak ere gehiago kontrolatuko lirateke. Izan ere, pasa den astelehenean izandako bileran horixe eskatu zuten herriko ikastetxe eta klubek: kirol elkarteen gastuak justifikatzea eta gehiago kontrolatzea.

TABERNA

Lci wpct vgmq
clct lqvct cmq rgmw
cr tar que



• Eramateko
OILASKO ERREAK
• Hobe aurrez
eskatuz gero

San Roke auzoa 5. ☎ 74 25 95

**KAROBI
PUB**



Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37

Makinatu lana antzeztuko du Taun Taunek azaroaren 3an

Datorren hilean, azaroaren 3an, Taun Taun txotxongilo taldearen azken ikuskizuna, "Makinatu", taularatuko da Herriko Antzokian. Atrakzio parke batean kamara jarri eta han jasotako irudiek erakusten zutenean oinarrituta dago lana. Bost kidek hartzen dute parte lanean: Itsaso Azkarate, Pili Garzia, Iñaki Mata, Carlos Odriozola eta Karmele Perezek. Miren Urkijo da lanaren zuzendaria. Saioa gaueko 22,15etan hasiko da. Sarreraren zenbatekoa 400 pta.koa da eta 250. pta.koa jubilatuentzat eta Gazte Txartela era-

kusten dutenentzat.

Helduentzako txotxongilo ikuskizunak eskaintzeko asmoarekin sortu zen Taun Taun taldea 1987ko abuztuan. Dagoeneko bost antzezlari dituzte erreperorioan: "Terror bajo los hilos", "Lam y la flor", "Bikate", "Taun Taun Show" eta "Makinatu". Euskaraz eta gaztelaniaz dira lanak. Txotxongiloa Jaialdi askotan hartu izan dute parte eta jasotako azken saria Azpeitiko Euskadiko Antzerki Topaketetan izan zen, "Taun Taun Show" lanak irabazitako lehen sariarekin.




Komiki Lehiaketaren Lanen erakusketa

Kokoek antolatzen duen Komiki Lehiaketan parte hartu duten lanak datorren 1etik aurrera azaroaren 17ra arte ikusi ahal izango dira Kultur Etxeko erakusgelan. Zuri-beltzeko komikiak dira guztiak, elgoibartarrenak ezezik, kanpoko komikigileek bidalitakoak ere bai. Lehiaketa nork irabazi duen datorren astelehenean, hilak 30, emango du ezagutzera Komiki Elkarteak. Lehen sailkatuak 90.000 pta.ko saria irabaziko du, bigarrenak 60.000 pta.koa, hirugarrenak 30.000koa eta 18 urtez azpiko marrazkilari onenarentzat 20.000 pta.ko saria egongo da.

Hankaluze ikastaroa

Taupada Antzerki Taldeak hankaluzen ikastaroa antolatzeko asmoa dauka. Hankaluzeeekin ibiltzeko, oreka gordetzeko eta akrobaziak egiteko teknikak ikasteko ikastaroa da. Ezer baino lehen, ikastaroan interesa duten pertsonekin bilera egingo da azaroaren 2an, arratsaldeko 7etan Taupadaren lokalean (Kiroldegiaren atzealdean). Berri gehiago jasotzeko, 74 04 78ra deitu Jose Mariz galdetuz.



**Metabo erreminta
elektrikoen eskualdeko
banatzailea**

SUMINISTRO INDUSTRIALAK

■ MOZKETARAKO ERREMINTAK

■ BABES MATERIALA

■ RODAMIENTOAK

■ LANPARA INDUSTRIALAK

Santa Klara kalea, 24 Tel/Faxa: 74 10 97 • ELGOIBAR •

Aitor eta Pabloren azken abentura Kalifornian

Pablo Barrenetxea, Aitor Esnaola eta Rosa Alamino Kalifornian egon ziren joan den abuztuan. Ekainean aurreratu genuen bezala, Aitorren eta Pabloren helburua Yosemite mendiko El Capitan horma eskalatzea zen. Eta lortu ere lortu zuten. Jakin dezagun zein izan zen beraien egonaldiaren nondik-norako zehatza.

■ Abuztuak 11

Hegazkina hartu eta Kaliforniarantz abiatu ziren hiru elgoibartarrak. San Franciscon lo egin eta Bailararuntz abiatu ziren autobusez. Herri batean auto bat erosi zuten 1.000 dolarren truke. Aitorren hitzetan, “kotxia erosteak merezi dau denbora asko egon bihar bazera ze gero saldu egin dezakezu. Baina, guk suerte txarra euki gendun eta hilabete-estropatu egin jakun”. Bailaran jende askorekin egin zuten topo, toki ezberdinetatik joanak, “en familia” egon omen ziren.

■ Abuztuak 18

Astebete egin zuten horma txikiak igotzen, praktikatzen, nola moldatzen ziren ikusteko... Kontatu digutenez jende


zan igual egun oso bat egon bihar zinan zain igo baino lehenago”. Hilaren 18an ekin zioten Yosemite igotzeari, “lehenengo Zodiac biatik igo gendun”. Aitortu digutenez, “zailua da hemen artifiziala itxia horma haura igotzia baino”.

■ Abuztuak 20

Hiru egun behar izan zituzten horma igotzeko eta horman bertan lo ere egin behar izan zuten, “oso ondo. Hobeto egin gendun amakan lo partian, beheko errepisan baino”. Gainera, jende asko omen zegoen beraiek bezala eta “amakatik amakara bata bestiar txilixoka ibiltzen ginan. Anbientillua dao”. Hiru egun eman zituzten oinekin lurrik zapaldu gabe “media bezala egunian 12 ordu eskalatzen gendun, goizeko 6etatik arratsaldeko 6etara, ilundu arte”. Abuztuaren 20an iritsi ziren gora. Jaisten lau ordu inguru eman zituzten.

■ Irailak 11- Urriak 15

Euren helburua lortu eta gero, bailaran bertan lasai-lasai egon ziren, lagunartean, errekarra joan, noizean behin beste hormaren bat eskalatu... “Oso toki politxa da, termal batzuk ere badaude eta ondo etortzen dia”. Pablo irailaren 11n itzuli



■ ■ Aitor eta Pablo Yosemite mendiaren aurrean.

zen Elgoibarrera. Beste biak, Aitor eta Rosa bertan geratu ziren eta turismorik ere egin zuten. “Batez ere parke naturalak ikusi genitxun, El Gran Cañon eta holakuak. Hala ere, Las Vegasen eta Berkelyn ere egon ginan. Amerikanoak pelikuletan bezelakuak dia, igual-igualak”. Eta hizkuntza aldetik? “Inglesa zakixan neska bat ere bazauan gurekin eta harek itxen zaban itzul-tzaile lana. Gainera, Kalifornian gaztelania jende askok daki, Txikano asko dago eta. Letrero asko ingelesez egotiaz gain gazteleraz ere badaude idatzita”. Aitor



eta Rosa urriaren 15ean itzuli ziren Elgoibarrera.

Hurrengo irteeraren berri jakin nahi izan dugu baina, esan digutenez, “momentuz arka bete behar ditzugu lenengo, dirurik gabe ezin da irteerarik egin”.



asko zegoen hormak igo nahian, “kriston kolak zeuden. Segun ze horma

Salerosketak

1,05 oherako BI EDREDO
SALTZEN DITUT modu
onean.
☎ 74 05 67 Maria Luisa

MENDIKO BIZIKLETA
txiki bat saldu nahi dut.
Orbea markakoa.
☎ 74 34 06

GAC MOTOZIKLETA
BAT saltzen dut. Lau urte
ditu, beltza eta segurua
dauka 96ko maiatza arte. Ia
berria dago, 50.000 pta.
Ikusteko: CIMDE P.
Muguruza 23
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

FRIGORIFIKO TXIKI BAT
saltzen dut. Estrenatu gabe.
23.000 pta.
☎ 74 01 51

Opel Kadet GSI 1.800
injección SS-AJ 76.000 km.
salgai.
☎ 19 19 54

BI AKUMULADORE eta
HIRU BEROGAILU salgai.
Erabili gabe, egoera oso
onean.
☎ 74 09 23

ARMAIRU BAT saldu nahi
dut: biltzen den ohea, 6
kajoi, bi sekreter eta abar...
Prezio onean.
☎ 74 15 75

Etxebizitzak

ETXEBIZITZA BAT saltzen
dut SORALUZEN.
☎ 74 34 05 / 74 34 06
M. Carmen edo Aurora

PISU BAT ALOKATUKO
NUKE Elgoibarren.
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXE BAT SALTZEN dut
Santa Ana kalean. Egoera
oso onean eta igogailuarekin.
☎ 74 36 34 / 74 38 41 Pili

PISU BAT ALOKATU
NAHI DUT neska batekin
Elgoibarren edo Eibarren.
☎ 74 16 30 Mario Oliva
Goizez 9,30-13,30

ETXEBIZITZA BAT
ALOKATU NAHI DUT
Elgoibarren. Altzariak
badauzka hobea.
☎ 74 28 36

Pertsona bat behar dut
Donostiako OKENDO
kalean PISUA konpartitzeko.
☎ 42 51 49

ELGOIBARREN PISUA
OSATZEKO pertsona bat
behar dugu.
☎ 88 42 59 Alaitz
(asteburuetan)

LOGELA BAT daukat libre
bi oherekin eta arropak ere
garbituko nituzke.
☎ 74 09 44

ETXEBIZITZA BAT
SALTZEN DUT EULOGIO
ESTARTAN. Egoera oso
onean dago.
☎ 74 10 46 Maite
(Gauetz 10etatik 11etara)

Elgoibarren PISU BAT
KONPARTITZEKO 2
pertsona behar ditut.
☎ 62 53 77

Lana

Neska euskaldun bat
ETXEKO LANAK EDO
UMEAK ZAINTEKO
PREST dago.
☎ 74 07 82 Aurkene
☎ 74 77 64 Manoli

Mendaroko baserri batean
gaixo bat zaintzeko
emakume bat behar da.
Egunean ordubete. Hobe
Mendarokoa bada.
☎ 15 04 41 Maribel

Neska bat ETXEKO
EDOZEIN LAN EGITEKO
PREST dago.
☎ 74 33 24 Maite

Garajeak

GARAJE ITXI BAT saltzen
dut Arregitorren. 38,19 m²
☎ 74 30 81
Gaueko 9,30etatik aurrera

Partikularrak

Ingenieritza eta magisterio
tituludunak KLASE
PARTIKULARRAK ematen
ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL
ETA DIEDRIKOKO klaseak
ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

OHOko KLASE
PARTIKULARRAK ematen
ditugu Elgoibarren.
☎ 68 20 42 / 67 06 49

ARTILE
ESKULANGINTZA
IKASTAROA emango dugu
Goikola baserrian, Lasturren.
Interesatuek deitu:
☎ 19 90 82 Karmen

Bestelakoak

Domekan ERAZTUN BAT
GALDU NUEN. Urrezko
perla zuri altu bat eta
koloretarlarak ditu inguruan.
☎ 74 02 44

Karitasek BI OHE TXIKI
(80 cm/ 90 cm.) koltxoekin
eta LABADORA bat behar
ditu.
☎ 74 15 09 - 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikirolegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki74 34 74

27 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"La jungla de cristal: la venganza"

28 LARUNBATA

10,00 ATLETISMO FROGAK
(alebinak)

✓ Mintxetan

Antolatzailea: Mintxetako
Atletismo Taldea etra Udala

10,00 KARAKATERA BIZIKLETA
MARTXA

✓ Irteera Plazatik

Antolatzailea: Gazte Asanblada

20,00 EASO ABESBATZAREN
KONTZERTUA

✓ San Bartolome parrokian

19,30-22,15 ZINEA

"La jungla de cristal: la venganza"

29 IGANDEA

16,30 ZINEA

"Liberad a Willy II"

19,30-22,15 ZINEA

"La jungla de cristal: la venganza"

30 ASTELEHENA

18,30 BILERAK GURASOENTZAT
INSTITUTUAN

1. eta 2. mailakoak

✓ Arreiturren

19,30 BILERAK GURASOENTZAT
INSTITUTUAN

3. eta UBI. mailakoak

✓ Bernardo Ezenarron

22,15 ZINEA

"La jungla de cristal: la venganza"

31 ASTEARTEA

19,00 KOMIKI LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Kokoe

Azaroaren 17a arte

22,00 ZINEA

"Antes del amanecer"

(Ikuslearen eguna)

1 ASTEAZKENA

16,30 ZINEA

"Liberad a Willy II"

19,30-22,15 ZINEA

"Kiling Zoe"

3 OSTIRALA

13,00 GANBARAREN KANTALDIA

Institutuko ikasleentzat

✓ Herriko Antzokian

22,15 TXOTXONGILOAK

Taldea: Taun-Taun

Antzezlanak: "Makinatu"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera: 400 pta.

txandak

FARMAZIAK:

| DATA | EGUNEZ | GAUEZ |
|-----------------|------------|------------|
| 28, larunbata: | Ormazabal | Ormazabal |
| 29, igandea: | Ormazabal | Ormazabal |
| 30, astelehena: | Yudego | Yudego |
| 31, asteartea: | Etxeberria | Etxeberria |
| 1, asteazkena: | Bidasolo | Bidasolo |
| 2, osteguna: | Etxeberria | Etxeberria |
| 3, ostirala: | Etxeberria | Etxeberria |

OKINDEGIA:

29, igandea: BOUTIQUE DEL PAN
1, asteazkena: ZABALETA

ZineA



Jungla de cristal: la venganza

Zuzendaria: John McTiernan
Antzezleak: Bruce Willis,
Jeremy Irons, Samuel L.
Jackson.

McClane (Bruce Willis) poliziaren aurka mendeku bila dabilen pertsonaia misterioitsu batek, Simon izenekoak, joko arriskutsu batean parte hartzera behartzen du McClane. Apustua: New York hiria. Joko Harlem-en hasten da. Han Zeus Carver-ekin bat egin eta Simon atzematen saiatuko dira.

Antes de amanecer

Zuzendaria: Richard Linklater
Antzezleak: Julie Delpy, Ethan Hawke.

Celine literatura ikasten ari den neska frantsesa da. Budapesteko trenean Sorbonako unibertsitatera bidean doala, mutil amerikar bat esertzen da ondoko jarlekuan. Jesse kazetaria da. Emaztegaiarekin Madrilen uda igarotzeko asmoa bazuen ere, porrot egiten dio planak eta beraz, EEBBetara itzultzeko erabakia hartzen du. Bien artean kimika berezia sortzen da eta Jessek Vienan berarekin gaua pasatzeko gonbitea luzatzen dio neskari.

Killing Zoe

Zuzendaria: Roger Avary
Antzezleak: Eric Stoltz, Jean-Huges Anglade, Julie Delpy. Zed, Eric-ekin batera Pariseko banketxe batean lapurtzeko. Behin Parisen, taxista batek gaua igarotzeko "emazte" bat eskaintzen dio. Hotelean, Zoe izeneko neskekin berehala konektatuko du. Ohean daudela, Eric iristen da eta Zoe gelatik bidaltzen du. Hurrengo egunean banketxean sartzen dira. Zoek bertan egiten du lan egunean zehar. Egoera ezin kontrolatuta, Eric-ek Zoe bahitzen du ihes egin ahal izateko.

BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA
PRESIOZKO GARBIKETA • GARBIKETA NEUMATIKOA • ASPIRAGAILUA

REZOLA GASOLINDEGIA

☎ 74 00 17



AZAROAK 1
DOMUSANTU EGUNA

Enkarquak aurrez egin

ORDUTEGIA:

Asteartea: 8:30-1:30 eta 3:30-9:00

Asteazkena: 8:30-12,30

Errosario 27. - Tel. 74 43 86 - ELGOIBAR

